

## HIZKUNTZEN PORTFOLIO EUROPARRA: ZENBAIT ARGIBIDE.

### Europako Kontseiluak bultzatutako proiektua.

Europako Kontseilua gobernu arteko erakunde aholku-emailea da. Estrasburgon du egoitza eta berrogeita bost kide ditu. Bere xede nagusietako bat Europako kultura-nortasunaren kontzientzia eta kulturen arteko elkar ulertzea sustatzea du.

Horretarako ari da Europako hizkuntzak erabiltzen dituzten europarren arteko komunikazio kalitatea hobetzeko lanean. Izan ere, Europan dagoen hizkuntza aniztasuna eta kultura aniztasuna zaindu eta indartu nahi ditu.

Hezkuntza alorrean hizkuntzak ikastera bultzatu nahi gaitu, aniztasun hori ez dadin komunikazio oztopo bihurtu. Hizkuntzak jakinez, europarren arteko mugikortasuna eta elkarlana indartu ahal izango dugu eta elkar hobeto ezagutu. Gainera, Hizkuntza guztien balioa berretsi eta hizkuntza guztienganako tolerantzia aldarrikatzen du.

Testuinguru horretan, hizkuntza irakaskuntza bera hobetu beharra ikusi du, eta horretarako, Europako Kontseiluak azken urteotan hezkuntza eleanitzaren eta kultura aniztasunaren beharrei erantzuteko hainbat printzipio eta tresna garatu ditu. Horien arten hizkuntzen ikaskuntza eta irakaskuntzaren eremuan oinarri bateratuak ezartzea helburu duten bi proiektu.

Aipatu proiektuak honako hauek dira: **Europako Erreferentzi Marko Bateratua** -Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako- eta **Hizkuntzen Portfolio Europarra**.

**Markoak** Europako hizkuntza-politika bateratua garatzeko oinarriak ezartzen ditu, eta horretarako edukiak, helburuak, metodologia eta ebaluazio- eta ikaskuntza-irizpideak zehazten ditu. Hizkuntzen irakaskuntzan ari diren profesionaleri zuzendua dago (irakasle, argitaletxe, materialgile, etab.).

**Portfolioa**, berriz, ikaskuntzaren kontzientzia garatzeko tresna da; nork bere ikas-prozesua ebaluatzeko eta bideratzeko tresna, alegia. Agiri horren bidez, hizkuntzak ikasten dituztenek era gidatu eta sistematikoan erregistra ditzakete bere hizkuntza-gaitasuna eta hizkuntzen arloan lortutako ziurtagiriak, baita beste hizkuntza eta kulturekin harremanetan bizi izandako esperientzia esanguratsu guztiak ere, eta aldi berean, ikas-prozesuaren inguruan hausnarketa egin dezakete. Tresna batez ere ikasleentzat da, hala ere, irakasle, guraso eta ikastetxeentzat ere erabilgarria izan daiteke.

Portfolioa Markoaren ondorio logikoa da eta bien artean lotura estuak daude, ikaskuntza bideratzeko hainbat tresna partekatzen baitituzte, besteak

beste, erreferentzi mailak, deskriptoreak, ebaluazio eta autoebaluazio eskalak, etb.

## **Europako Erreferentzi Marko Bateratua**

Hizkuntzen Portfolio Europarraren oinarria Europako Erreferentzi Marko Bateratua deritzan dokumentuan dagoenez, Markoaren zertzelada batzuk ematea komenigarria da.

Duela lau urte argitaratu zen hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Markoaren azken bertsioa. Horrek hizkuntza guztietarako Erreferentzi maila bateratuak eta irizpide-batasuna ezartzea du helburu (ikus euskaraz, HABE,2005). Markoak hizkuntza komunikazio tresnatzat hartzen du eta irizpide komunikatiboak eta pragmatikoak nagusitu dira dokumentuan. Gardena, integratzailea eta koherentea izan nahi du; era guztietara, ikasketa prozesuari logika aplikatu nahi dio.

Horretarako Markoak zenbait ekarpen egin ditu:

### **1) Erreferentzi mailak**

Hizkuntza batean ezer ez jakitetik hizkuntza hori erabat menderatu arteko mailak zehazten ditu:

**A1,A2:** Oinarrizko erabiltzailea ( hasierakoa eta tartekoa)

**B1,B2:** Erabiltzaile independentea (atalasea eta aurreratua)

**C1,C2:** Erabiltzaile gaitua (gaitasun eraginkorra eta menderatze maila).

Maila hauetara egokitzen joan behar dugu guztiok. Horrek izugarritzko eragina izango du ikasleak mailakatu edota ikastaroak antolatzeke orduan, baina baita azterketak bateratzeko eta homologatzeko orduan ere.

Esate baterako, EGA eta Hezkuntzako HE2, C1 maila dira; HE1, B2 maila. Badirudi DBH bukatzerakoan B2 maila izango dela helburu, bai euskarari dagokionean eta bai atzerriko hizkuntzei dagokienean ere, D ereduoen artean behintzat. Beste hizkuntza ereduetan zer maila eskatu erabakitzeke lanean ari dira.

### **2)Deskriptore argigarriak**

Autoebaluazio moldean definitutako deskriptoreen bidez, mailaz maila eta trebetasunez trebetasun hizkuntza ikasleek eskuratu beharreko gaitasunak zehazten dira. Ikaslea hiztuntzat edo hizkuntza-erabiltzailetzat hartzen da, bere hizkuntza-garapena edozein dela ere.

Bost hizkuntza-trebetasun deskribatzen dira oso modu zehatzean: Entzumena, irakurmena, ahozko adierazpena, ahozko elkarreragina eta idatzizko adierazpena.

*Esate baterako, C1eko ahozko adierazpenean horrela dio deskriptoreetako batek: "Gai naiz prozedura bat nola burutu behar den argi eta zehatz azaltzeko".*

2) Markoak **jardueretan oinarritutako ikuspegia** garatzen du.

Ikasleak testuinguru jakinetan eta alor zehatzetan hizkuntza-jarduerak burutu behar dituzten gizartearen partaide gisa hartzen ditu. Beraz, jarduera linguistiko komunikatiboak bultzatu eta horiek burutzeko estrategiak irakatsi eta ikasi behar dira. Gramatikari soilik begiratu beharrean, komunikazioari eragiten dioten elementu guztiak hartzen dira kontuan: asmo komunikatiboa, testu mota, testuingurua, solaskideen elkarreragina, etab.

Gaitasun linguistikoekin batera, gaitasun soziolinguistikoak eta pragmatikoak ere landu behar dira, eta hizkuntza jarduerak aurrera eramateko estrategiak ere bai.

*Esate baterako, ahozko elkarreraginean ikasi beharko dugu eztabaidatan parte hartzen, informazioa trukatzeko... Labur esanda, komunikazio-egoera nolako, halako hizkera moldea erabiltzen.*

4) Ebaluazio-tresnak: **Autoebaluazioa, irakaslearen ebaluazioa eta kanpoebaluazioa.**

Irakaslearen ebaluazioaz eta kanpoebaluazioaz gain, autoebaluatzeko tresnak (Portfolioa) eskaintzen dizkigu Markoak.

Autoebaluazioaren bidez ikasleari bere ikas-prozesuan protagonista izateko ahalmena eskaini nahi zaio. Ikaslea alderdi baikorrak eta egindako aurrerapenak indartzera bideratuko du: zer lortu duen, zer egiteko gai den ikasten ari den hizkuntza horretan... Horrek eragin handia eduki dezake hizkuntzak ikastea ezinbesteko duen gaurko irakas-sisteman.

Irakaslearen ebaluazioetan eta kanpoebaluazioetan ere izango du horrek oihartzunik. Bestalde, gardentasuna eta ziurtagirien batasuna eta homologazioa ekarriko ditu Europa mailara eta gure artera.

### **Hizkuntzen Portfolio Europarraren egitura eta eginkizunak**

Markoari buruz esandakoa ikaslearen mailara ekarrita dago Hizkuntzen Portfolio Europarrean. Portfolioa tresna pertsonala da. Ikasle bakoitzak (haur, gazte zein heldu izan) esku artean izan dezake berea, adinari egokitutako dokumentuak diseinatu baitira, bizitzan zehar hizkuntzak ikastea bultzatzeko eta ahalbideratzeko.

Lehen esan bezala, Portfolioak European dugun hizkuntza eta kultura aniztasuna ulertzen, balioesten eta hari modurik egokienean erantzuten lagundu nahi dio hizkuntza ikasleari. Hona, bada, bere bi helburu nagusiak:

- a) Ikasleak hizkuntzak ikastera bultzatu nahi ditu eta haiengan autonomia eta autoebaluatzeko gaitasuna garatu. Laguntza eman nahi die edozein hizkuntza ahalik eta ondoen ikas dezaten. Eraginkorrago, kontzienteago eta zuzenago ikasten laguntzeko tresna da; ikasleek bere ikas-prozesuaren erantzukizuna har dezaten paratutako tresna, hain zuzen ere.
- b) Hizkuntza-gaitasunen erregistro bat sortzea da bigarren helburua. Ikasleak, ikastetxez aldatu edota beste herrialderen batera joaten bada, lan- eta ikasketa-mugikortasunari erantzun ahal izango dio, erreferentzi agirien bidez.

**Hizkuntzen Portfolio Europarra 3 atalek osatzen dute beti:**

1. **Hizkuntzen Pasaportea.** Nazioartean homologatutako formatua eta eskalak ditu. Bide emango dio erabiltzaileari frogatu ahal izateko zenbat hizkuntza erabiltzen duen, eta, lortutako ziurtagiri eta diplomen bidez, zer-nolako maila duen horietako bakoitzean. Orobat, ikasten ari den hizkuntza hori hitz egiten den lurraldean egindako egonaldiak erregistratu ahal izango ditu.
2. **Hizkuntza-biografia.** Hizkuntzen ikaskuntzan egin duen ibilbidearen eta izandako esperientzien inguruan gogoeta egitera bultzatu nahi du ikaslea. Batez ere, ikasleari bere ikas-prozesuan dituen lehentasunak planifikatzeko eta lortutakoa neurtzeko eskalak eskaintzen dizkio. Beraz, hausnarketarako tresna da batik bat.
3. **Dosierra.** Azken atal honen bidez ikasleek beren ikas-prozesuan erabilgarri gertatu zaizkien edo egindako aurrerapenen adierazgarri-lekuko diren lanak bildu ahal izango dituzte (idatziak, ikus-entzunezkoak...); baita agiri eta dokumentuak ere.

### Portfolioaren froga-aldia

Eusko Gobernuak ALTEren Portfolioa bultzatu du helduentzat (2004), eta lau hizkuntzatan, euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez argitara eman. Hezkuntza sailaren bidez, helduen artean zabaldu da.

Espainiako Estatuan, Hezkuntza eta Zientzi Ministerioak kudeatutako Portfolioaren proiektua 2001ean (Hizkuntzen Urte Europarrean) jarri zen abian. Proiektu horren garapenaldiak honako hauek izan dira:

1. Markoaren egokitzapena egiteko gida bat prestatu da Estatu Espainiarrean

2. Proiektuaren tresna pedagogikoak eta baliabide osagarriak prestatu dira; lau eredu argitaratu dira,
- ❖ Haur Hezkuntzako Portfolioa da lehena, 3-8 urte bitarteko haurrei zuzendua.
  - ❖ Lehen Hezkuntzako Portfolioa, 8-12 urte bitarteko haurrei zuzendua. Euskaraz ere izango dugu.
  - ❖ Bigarren Hezkuntzako Portfolioa, 12-18 urte bitarteko gaztetxoei zuzendutakoa da. Euskaraz ere izango dugu.
  - ❖ Azkenik, 16 urtetik gorako helduentzako Portfolio.
3. Portfolioa osatzen duten tresna didaktikoen esperimenez aldi bat planteatu zen iaz, eta aurtengo ikasturtean Estatuko erkidego guztietan Portfolioa erabiltzen hasteko asmoa dago.

Donostian, 2005eko apirilaren 29an

Ainhoa Imaz Gaztelurrutia (Gasteizko Berritzegunea)  
Lore Goenaga Mendiola (Donostiako IRALE)